

Hezkuntzaren Aldeko Akordioa: **AKORDIOAREN OINARRIAK** dokumentuari ekarpena



2018ko otsailaren 16an



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

AURKIBIDEA

1. ATARIKOA	5
<hr/>	
2. <i>IKASLE EUSKALDU ELEANIZTUNAK</i> PROPOSAMENA	7
2.A. TESTUINGURUA	7
2.B. ETAPA ETA ZIKLO BAKOITZEAN HIZKUNTZEN ARTEKO DENBORA-BANATZE PROPOSAMENA	12
2.B.1. HAUR HEZKUNTZA	13
2.B.2. LEHEN HEZKUNTZA	14
2.B.3. BIGARREN HEZKUNTZA	15
2.C. HIZKUNTZA PROIEKTUA ABERASTEKO IKASTETXE GUZTIEK IZAN BEHAR DITUZTEN PRESTAKUNTZA- JARDUERA ASKOTARIKOAK	16
2.C.1. DISKURTSOARI DAGOZIONAK	18
2.C.2. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZARI DAGOZKIONAK	18
2.C.3. IKASLEEI DAGOZKIENAK	19
2.C.4. HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PLANARI DAGOZKIONAK	19
2.D. B2 HELBURUA EGOKI NEURTZEKO EBALUAZIO- TRESNAREN DISEINUA	21
2.D.1. NEURKETA ZEHATZAK	22
2.D.2. EBALUAZIOAREN IZAERA ETA GAUZATZEA	23
2.E. PROPOSAMENEAN ERABILITAKO ZENBAIT KONTZEPTURI EMAN ZAION ESANAHIA	24
2.F. HIZKUNTZA IRAKATSI ETA IKASTEKO MARKOAREN GARAPENERAKO ARDATZ NAGUSIAK	25
<hr/>	
3. HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO PROTOKOLOA	25
3.A. SORRERA	25
3.B. DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREKIN LOTUTAKO NEURRIAK	28
3.C. PROTOKOLOAREN EUSKAL HERRIRAKO GARAPENA	31
3.D. ATXIKITZAILEAK	31
<hr/>	
4. ONDORIO NAGUSIAK ETA <i>AKORDIOAREN</i> <i>OINARRI</i> ETAN BERARIAZ JASO BEHARREKOA	32
<hr/>	

1. ATARIKOA

2017ko irailaren 25ean Hezkuntza Sailak abian jarri zuen EAEn Hezkuntzaren Aldeko Akordioa erdiestea bultzatzeko prozesua, eta bertan hamarnaka eragile, sindikatu eta abarrekoak bildu ziren. Aipatu bileran, Hezkuntza Sailak bost lan eremu zehaztu zituen, hain zuzen ere, bizikidetza, hizkuntzak, ebaluazioa, hezkuntza modernizatzea eta ikastetxeen autonomia. Horrela, irailetik aurrera bost lan-eremu horiei lotutako proposamenak egiteko bost lan-talde abian jarri ziren.

Prozesuaren lehen urratsak egiten ari zirela, Kontseiluak agerpen publikoa egin zuen 2017ko abenduaren 4an. Bertan, hezkuntzako eragile garrantzitsuak, besteak beste, Euskal Herriko Ikastolak, Sortzen, Kristau Eskola, Hik Hasi, UEU eta HEIZE, bai eta euskal gehiengo sindikala ere, Kontseiluarekin batera atera ziren. Agerraldian zabaldu berri zen prozesuan hizkuntzaren eremuan jauzia eman beharra aldarrikatu genuen, eta eskaera bateratua egin genuen, hain zuzen ere, Ikasle euskaldun eleaniztunak bermatuko dituen ikasteredu orokortua abian jartzeko. Horretarako baldintza errealak ikusten genituela adierazi genuen, izan ere, irakasleria alde dago eta horren aldeko gehiengo soziala zein sindikala ere badago.

Agerraldian adierazi bezala, eta hainbat azterketek agerian utzi duten moduan, euskararen gaitasun egokia eskuratzeari dagokionez egungo ereduak goia jo dute. Ildo horretan, ikasle guztiei eskubide berdinak bermatu behar zaizkiela edota ezin direla lehen mailako eta bigarren mailako ikasleak bereizi gogorarazi genuen. Halaber, gogorarazi genuen proposamen zehatzak badaudela horri buelta emateko: *Ikasle Euskaldun Eleaniztunak eta Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa*. Izan ere, ez dago gaur egun hezkuntza-komunitatearen eta gizartearen babes handiagoko proposamenik.

Ondoren, 2018ko otsailaren 5ean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuak *Akordioaren Oinarriak* izeneko dokumentua aurkeztu zuen hezkuntza eremuko hainbat eragileren artean.

Bileraren osteko agerraldian, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuak adierazi zuen legegintzaldi honetan Hezkuntzaren Euskal Legea onesteko konpromisoa dutela. Hortaz, eztabaida garrantzitsua dugu eskuartean. Finean, Uriarte andreak esan bezala, lege horrek denboran iraun behar du, egonkortasuna eman behar dio sistemari, eta aldi berean etengabe egokitzea ahalbidetuko dion araudi-garapena eman behar dio.

Akordioaren Oinarriak dokumentua hezkuntza-sistemaren etorkizunerako funtsezko diren bost eremutan abiatu den hausnarketa- eta eztabaida-prozesuaren ondoren, bost hausnarketa-taldetan adostu da: modernizazioa, bizikidetza, hizkuntzak, ebaluazioa eta ikastetxeen autonomia.

Hizkuntza-gutxituen, eta beraz euskararen, normalizazio-prozesuetan hezkuntzaren zutabea oso garrantzitsua da. Izan ere, hizkuntza bat normalizatzeko hiztunak eta espazioak behar dira, eta hiztun berriak lortzeko, kasu honetan, belaunaldi berri euskaldunak izateko, hezkuntza da iturri garrantzitsuena.

Horrexegatik, hain zuzen ere, Euskararen Gizarte Erakundeak KONTSEILUAK hezkuntzaren esparrua modu berezitan jorratu izan du bere sorreratik bertatik. Gainera, esan behar dugu, hezkuntzaren eremuko eragile garrantzitsuenak biltzen dituela gure

erakundeak, eta beraz, azken hamarkadotako eskarmentua ere erabili izan dugu geure proposamenak jorrazteko.

Esan bezala, Jaurlearitzak zabalduetako prozesuak Hezkuntzaren Euskal Legea ekarriko du, eta Kontseiluak erantzukizunez jokatu nahi du, bai eta proposamen xehea aurkeztu ere.

Horrexegatik, Kontseiluak orain arte ikasle euskaldun eleaniztunei begira sortutako material garrantzitsuena jarri nahi du Eusko Jaurlearitzaren esku. Batetik, 2007ko abenduan argitaratutako *Ikasle Euskaldun Eleaniztunak* delako proposamena. Hezkuntzako Euskal Herriko Ikastolak, EHIGE, Sortzen, Kristau Eskolak eta Hik Hasi eragileekin zein hainbat aditurekin, Mari Jose Azurmendi, Paulo Iztueta, Matilde Sainz, Felix Etxeberria... jorratutako proposamena, hain zuzen ere, ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitzen dutenean hizkuntza-gaitasunak eskura ditzaten.

Bigarrenik, 2017ko abenduaren 17an Europako hogeita hamar hizkuntza gutxituen berreskurapenaren alde lan egiten duten ehunetik hora eragilek adostutako Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa. Izan ere, Protokoloak ere jasotzen du hizkuntza-eskubideen ikuspegitik beharrezkoa dela, besteak beste, hizkuntzaren gaitasun egokiak bermatuko dituen ikasteredu orokortua abian jarri beharra.

Gauzak horrela, Kontseiluak egiten duen proposamena nahikoa zehatza dela esango genuke. Finean, *Akordioaren Oinarriak* dokumentuan ikasleek derrigorrezko hezkuntzan izan beharreko hizkuntza-gaitasunetan bat egiten dugu. Ondorioz, hurrengo urratsa IKASLE GUZTIEK, inolako bereizkeriarik gabe, gaitasun horiek lortzeko abian jarri beharko litzatekeen ikasteredu orokortua definitzea litzateke. Har itzazue, beraz, ondorengo orrietako proposamenak ikasteredu orokortu hori definitzeko urteetan belaunaldi berri euskaldun eleaniztunak sortu dituzten eragileen ekarpen gisa.

2. IKASLE EUSKALDUN ELEANIZTUNAK PROPOSAMENA

Euskararen Gizarte Erakundeak Kontseiluak elkarlan iraunkorra izan zuen urteetan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin irakastereduen gainditzearen inguruan.

Horrela, 2006an, sail honetatik abiatutako *Ele biko irakastereduen azterketaren* barruan ekarpena bideratu zuen Kontseiluak, ele biko irakastereduen inguruan honako azterketa burutuz:

- Juridiko-legala.
- Soziolinguistikoa.
- Psikolinguistiko eta glotodidaktikoa
- Operatiboa.

Aipatu azterketak ez ditugu proposamen honetan bildu, baina nahi izatera Sailaren esku jarriko genituzke, zalantzarik gabe.

Azterketaren emaitza izan zen *Ikasle guztiak euskalduntzeko Kontseiluak egiten duen proposamena*”, 2006ko azaroan aurkeztutakoa.

2007an, Hezkuntza Sailak esku artean duen *Elebiko irakastereduen azterketa eta ezarpenaren* barruan burutu zuen Kontseiluak jarraian aurkeztuko dugun ekarpena.

Aipatu egitasmoaren baitan, hiru dira proposamenaren eduki garrantzitsuenak:

- Etapa eta ziklo bakoitzean hizkuntzen arteko denbora banaketa.
- Ikastetxe guztiek izan behar duten hizkuntza proiektua aberastea.
- B2 helburua egoki neurtzea.

Proposamena osatzerako orduan, Kontseiluko hezkuntza arloko bazkideak eta beren ordezkariak bildu ziren Arantxa Urbek zuzendutako lantalde teknikoan; Euskal Herriko Ikastolak, EHIGE, Kristau Eskola, Sortzen eta Hik Hasi. Hartara, urteetan hezkuntza-sisteman belaunaldi berri euskaldun eleaniztun gehien sortu dituzten eragileen eskarmentua izan genuen, besteak beste, oinarri

Aipatutakoez gainera, honako adituen ekarpenak ere jaso zituen proposamenak: Mari Jose Azurmendi, Felix Etxeberria, Paulo Iztueta eta Matilde Sainz, hain zuzen ere, marko teorikoa eta akademikoa bermatu ahal izateko.

2.A. TESTUINGURUA

Euskal Hezkuntzako partaideak, eta jendartea oro har, erronka handi baten aurrean aurkitzen gara. Europar Batasuneko herrialdeen arteko mugak gero eta lausoagoak diren honetan, euskal haurrak eta gazteak abiada bizian aldatzen ari den jendartean garatzeko prestakuntza zinez egiteko konplexua da. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak, jendarte elaniztun eta kulturaztun horretan, hizkuntzak irakatsi eta ikasteko irizpideak eta orientabideak finkatu ditu. Orain, euskaldunoi dagokigu jendarte eleanitz horretan geure lekua hartzea, eta, berezko hizkuntza eta kultura ditugun heinean, geure ekarpena egitea jendarte hori aberasteko. Euskaldunok euskaldun gisa biziraungo badugu, euskaldun eleanitz gisa izango da, dudarik gabe. Aurrean dugun erronkari ahalik eta egokien erantzuteko bideak diseinatzeko tenorea da. Eta horrekin batera, euskal jendarteari momentuaren garrantziaz ohartarazteko ahalegina egiteko ere bai. Ilusioz ekin diezaiozun,

bada, eta zipriztindu dezagun euskal jendartea ilusio horretaz. Denok, eskola eta jendartea, momentuaren garrantziaz jakitun, erronkari ahalik eta hobekien erantzun behar diogu, denen arteko elkarlanean.

Hezkuntza Sailak HEZKUNTZAREN ALDEKO AKORDIOA izeneko prozesuari ekin dio, eta hainbat lan-taldetan zenbait adituko egindako ekarpenekin *Akordioaren Oinarriak* izeneko dokumentua argitaratu du.

Ondorioz, honen bukaeran lege berri bat irudikatu beharko genuke, bai eta lege hori garatzeko beharrezkoak diren dekretuak eta aginduak. Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak, bere aldetik, garapen hori burutzeko kontuan izan beharko liratekeen aldagaien eta hartu beharko liratekeen neurrien inguruko proposamena egin nahi du. Bi hizkuntza ofizial ditugu, baina berezkoa, euskara, egoera gutxituan.

Proposamena lantzerakoan kontuan hartu beharko dira hainbat zientzia-diziplina; hala nola, glotodidaktika, soziolinguistika, psikolinguistika, soziopolitika eta beste. Egoera soziolinguistikoari begiratzen badiogu, hizkuntza ereduak azken hamarkadotako esperientzia luzeak argitan utzi du derrigorrezko hezkuntzan urte horietan aplikatutako ereduak ez dutela balio bera izan ikasleak euskalduntzeko. Eskolan euskaraz denbora gehiagoz aritu diren ikasleak izan dira gehiago euskaldundu direnak, eta horien ondoan, eskolan euskaraz denbora zenbat eta gutxiagoz aritu direnak, orduan eta gutxiago euskaldundu dira edo ez dira euskaldundu. Aldiz, kasu guztietan gaztelania maila egokia lortu dute. Orain arte garatutako plangintzak bereak eman ditu: egiten duguna egiten jarraitzen badugu, badakigu jada zer lortzen dugun. Ondorioz, eta beste helburu batzuk lortu nahi baditugu, beste emaitza batzuk erdietsi nahi baditugu, desberdin egin beharko ditugu gauzak ezinbestez.

Ondorioz, hortik garbi ondorioztatzen da euskarari lehentasuna eman behar zaiola eskolan ikasle euskaldun eleaniztunak lortuko baditugu, behintzat; hau da, derrigorrezko hezkuntza amaitzen dutenean ikasle guztiek ongi menderatu behar dituztela bi hizkuntza ofizialak eta gainera atzerriko hizkuntza bat edo bi. Jakina da, bestalde, euskarari eskaintzen zaion denborarekin batera, denbora horren kalitatearen azterketa funtsezkoa dela.

Bestalde, ukipenean dauden hizkuntzen artean kooperazioa sortu beharrean lehia sortzen da: gaztelania eta frantsesa lehian daude euskararekin. Ondorioz, eta ukipen-lege hori dela eta, euskarak lehentasuna izan behar du, euskara erabilgarria ikus eta gerta dadin.

Horiek guztiak kontuan hartuta, jarraian aurkeztuko dugun proposamenean euskara da, kasu guztietarako, eskolako hizkuntza. Beraz, etxeko hizkuntza euskara ez duten ikasleentzat murgiltze-eredua proposatzen da eta etxeko hizkuntza euskara dutenentzat mantentze-eredua.

Horretaz gain, proposamen honek alde psikolinguistikoa eta soziolinguistikoa kontuan izanik, oinarrizko printzipio bat plazaratu nahi du: euskara gutxiago duen ikasleari eskolak euskara gehiago eskaintzea. Horrela azken hilabeteotan planteatzen den arriskuari irtenbidea eman nahi zaio. Behin baino gehiagotan entzuten ari gara ahots desberdinen aldetik, ikasleek derrigorrezko hezkuntzan eskuratu beharreko hizkuntza-gaitasuna desberdina izan beharko litzatekeela eremu soziolinguistikoaren arabera. Kontseiluaren iritziz horrek Nafarroan horrenbeste kalte eragin duen *zonifikazioaren* antzeko egoera lekarke, eta are larriagoa dena, ikasleei bizi diren tokiaren araberrako gaitasunak eskuratzeko aukera emango litzaieke, berdintasun-printzipioa hautsiz. Badakigu, egoera soziolinguistikoa aldagai garrantzitsua dela hizkuntzaren jabeak, eta horrexegatik lehen esandako esaldia

berretsi nahi dugu: Euskara gutxiago duen ikasleari, euskara gehiago eskaintzea, ez, ordea, maila jaistea.

Proposameneko beste habeetako bat Haur Hezkuntzak hizkuntzen ezagutzan duen garrantzia azpimarratzea da. Eta Haur Hezkuntzaren barruan, 0-3 zikloak, hain zuzen. Burutu diren ikerketek erakutsi dute 0-3 urteko epea oso garrantzitsua dela hizkuntzaz jabetzeko, adin horretako haurrek duten gaitasuna aparta baita. Hortaz, gure esku egon daitezkeen eremuak zaindu eta haietan eragin behar dugu, eta haurraren denboraren % 100 euskaraz izan dadin ahalegindu. Euskararen irakaskuntza ez bada nahikoa goiz hasten, ingelesa baino gutxiago ikasiko dute, nahiz eta ordu gehiago eskaini haren irakaskuntzari. Hizkuntzen arteko lehiaketa legearen ondorioa da. Beraz, ez genituzke emaitza berak lortuko euskararen irakaspenean 6 urterekin hasita ere. Hainbat ikerketaren arabera, 2 urteko haurrak urte batean ia jatorrizko euskaldun baten maila lortzen du. Psikolinguistika aldetik ez dago arazorik murgiltze-eredua erabiltzeko, adin horretako haurrak hizkuntzak ikasteko ahalmen handia baitu, eta urte horietan lortzen dena beste indar batekin lortzen baita. Hala ere, soziolinguistika ere kontuan hartu behar da: gauza bat da haurrak dituen gaitasun psikologikoak eta bestea ingurune soziolinguistikoan zer giro eta jarrera dagoen. Horien arabera, aukera batzuk egin beharra dago. Hortaz, psikologikoki posible izateaz gainera, euskararen ezagutza eta erabileraren alde egiteko murgiltze- eta mantentze-ereduak posible dira. Zailtasunak jatorrian zuzentzeko bideak ipintzeko asmoarekin, urte gutxitan haurra euskalduntzea lor liteke eta euskararen oinarriak sendotu ere egin litezke; aukera hori litzateke, beraz, merke, erraz, koherente eta logikoena.

Bereziki zaindu beharko litzateke alde afektiboa. Era berean, kontu handiz zaindu beharrekoa litzateke maila pertsonala, ez baitugu ahaztu behar motibazioak ere pertsonalak direla. Dударik ez dugu euskarara afektiboki hurbiltzea lortzen den kasuetan hizkuntzarekiko atxikimendua handiagoa dela eta horrek asko errazten duela ondorengo hizkuntzaren gaineko ikasketa guztia. Gainera, norberaren etxeko hizkuntzarekiko eta kulturarekiko errespetuzko jarrerak ere euskararekiko hurbilketa afektiboaren urrats sendoak dira.

Identifikazioa ere aipatuko dugu geure proposamenean. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu haurrek hizkuntza pertsona eta espazio jakinarekin identifikatu ahal izatea. Horrela, etxetik euskara ez dakarten haurrek eskola eta bertako langileak identifikatuko dituzte euskararekin, eta bi hizkuntzen arteko interferentziak saihestuko dira, horiek sendotuz. Bi alde hauek ere, afektiboa eta identifikazioa, Haur Hezkuntzan egokiago landu daitezkeela deritzogu, etapa horrek eta haurrek adin horretan duten berezitasunengatik.

Zalantzarik gabe, lan hori guztia ahalik eta hobekien egin ahal izateko bereziki eragin beharko da hainbat arlotan: taldeen antolaketan, motibazioan, metodologian eta irakasleen prestakuntza teknikoan, batik bat. Euskararen ezagutza maila nabarmen hobetu nahi bada, eta beharko da ipini diren helburuak bete ahal izateko, metodologian berrikuntza sakonak egin beharra dago. Hizkuntzen irakaskuntzan bereziki kontuan hartu beharko da hizkuntzaren alde kualitatiboa eta haren irakaskuntza intentsiboa. Horretarako, ezinbestekoa da hizkuntza helburuak mailaka eta etapaka zehaztea. Hizkuntza baten ezagutzan osotasuna lortzeko, ikusten denari, idazten denari, internetari eta ahozkotasanari garrantzia eman behar zaie. Baina ez dezagun ahantz euskara ezagutzeko helburuarekin batera, euskararen erabileran ere eragin beharko duela metodologiak. Ahozkotasanari bere tarteak eskaini beharko zaio metodologian, eta ordutegiaren barruan ere ahozkotasanarentzat ordu kopuru bat ziurtatu beharko da. Ezinbestekoa da ikasleek euskararen funtzionalitatea sentitzea, eta horretarako ikasleek hitz egin behar dute eskolan.

Interakzioa bultzatzen duten metodologiak txertatu behar ditugu geure jardun pedagogikoan, talde-dinamikaren ildoetan barneratu behar dugu. Aritu askoren ikerketek azaldu dute interakzio egoki bideratuek irakaskuntza-prozesuetan duten eragin positiboa. Ikasleek gehiago eta hobeto ikasten dute elkarren arteko eta irakasleekiko interakziotik. Interakzio intentsiboak, eraginkorra izan dadin, programatua izan beharko du, kontzientea eta berariazkoa. Hezitzaileak, beraz, estrategia horietan trebatzea ezinbestekoa izango da. Bestalde, taldeak kopuru aldetik interakzioa bermatzeko jasagarriak izango diren neurrian eta eran antolatzea begi-bistakoa dirudi. Hala ere, interakzioarekin batera pertsona bakoitzaren posibilitateak landu behar dira. Talde-lanarekin batera, bakarkako lanean ere trebatu beharko dira ikasleak. Ondorioz, irakasleak prestatu beharko dira erronka horietarako guztietarako, hau da, hizkuntza egoki irakasteko.

Euskal hezkuntza-sistema gaur ematen dituenak baino emaitza hobek emateko gai da, horretarako behar dituen baliabide guztiak erabiliz gero, baina guztiarekin ere mugatua da bere eragina eta ezin lekiokoe eska jendarteak bere aldetik eman behar diona. Lehen urratsa zentroa izaeraz eta funtzionamenduz benetan euskalduna izatea da. Eta hortik abiatuta, eskola barrua eta kanpoa lotu beharko ditu proposamenak. Beraz, aisialdiaren eta eskolaren arteko koordinazioak estua izan behar du, ikasleek eskolatik kanpoko ekintzak ere euskaraz egin ahal izateko. Eskolak motorra izan behar du prestatzen dituen euskal ikasleak euskarazko espazioetan integratzeko, ikasleak euskaradunak baino euskaldunak areago izateko.

Eta horrek guztiak, dudarik gabe, ebaluazioa beharko du. Diseinatzen diren plangintzek euskararen ezagutza maila eta erabilera maila egokia ziurtatzen duten jakiteko, eta horrela ez den kasuan laguntza-bideak non behar diren detektatzeko. Funtsezkoa da jendarteari adieraztea hainbeste urtetan hizkuntza-ereduetan oinarri eta erreferentzia izan duen hezkuntza sisteman non eta zergatik egin diren aldaketak, eta zein diren aldaketaren gako nagusiak. Jendarteak adostasun ahalik eta zabalena adieraz dezan Hizkuntzak Irakatsi eta Ikasteko Marko berriarekiko eta haren garapenarekiko ezinbestekoa izango da orain artekoa zertan aldatu den azaltzea: aldaketaren gako nagusiak ongi komunikatu behar dira eta aldaketa elementuak oso ongi transmititu behar dira. Gure ustez, ebaluazioaren gaiak funtsezko betekizuna du. Hasieratik jendarteari iradoki beharko litzaioke ebaluazioaren garrantzia, zer eredu izango dituen, eta nola egin eta kudeatuko den.

Laburtuz, euskararen ardaztutako eleaniztasunaren bidean egin beharreko lanean hezkuntza komunitateen autonomia eta esku-hartzea bilatu eta indartu beharko luke Hezkuntza Sailak. Derrigorrezko Hezkuntza bukatzen duen gazte batek gaztelaniari, euskarari, ingelesari edota frantsesari eta laugarren hizkuntza bati buruz eskuratu beharko lituzkeen gaitasunak argi zehaztuta, ikastetxe bakoitzaren esku gelditu beharko luke, bizi duen errealitatea (soziolinguistikoa eta abar) kontuan hartuta, bere ibilbide propioa zehazteak. Hizkuntza proiektua litzateke horretarako markoa eta ezinbesteko tresna, ikastetxean lantzen diren hizkuntza guztien irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak koherentziaz eta era bateratuan biltzen dituen dokumentu adostua, hain zuzen.

Ezarritako helburuen lorpenaren jarraipena egiteko kanpo ebaluazio-sistema bat ezarri beharko litzateke, baina honen hedadura ondo aztertzea litzateke ez bailuke inoiz ordezkatu behar eskola bakoitzak bere hizkuntza proiektuaren garapenean duen erantzukizuna. Azkenik, ikastetxeek egin beharreko ibilbide horretan beharrezko prestakuntza, baliabideak eta banakako laguntza bideratzeak Hezkuntza Sailaren lehentasuneko zeregina izan beharko luke, gure ustez.

Berrikuntza horiek guztiak eraginkorrak izan daitezten, eta erdietsi nahi diren helburuak sendotasun handiagoz finkatzeko, derrigorrezkoaz haragoko hezkuntzan esku hartu beharra dago. Derrigorrezkoaren ondorengo Hezkuntzak, Lanbide Heziketak eta Unibertsitateak ere eraldaketa sakonak beharko dituzte, jendartean plangintza hauek guztiek sinesgarritasuna izan dezaten.

Bide batez, hizkuntzak irakasteko eta ikasteko erronka berri honetan, Unibertsitatearen inplikazioan sakondu beharko litzateke. Unibertsitateak eginak baititu hausnarketak eta ikerketak prozesu horietan lagungarriak direnak eta, horiek guztiak, irakaste/ikaste prozesuan sor daitezkeen kezkek eta anbiguetateak argitzeko lagungarriak izan daitezke. Era berean, irakaslegai berriak prestatzen ari diren Irakasle Eskolen jarduna oso kontuan izan beharko da. Erronka berri hauei guztiei erantzuteko prestakuntza behar dute irakasle berriek ere, eta noski, euskaraz izan behar du.

Pedagogia mota berrietan eta eraginkorretan prestatu beharko dira irakaslegaiak, ikasleei parte-hartzaileak, kritikoak eta sortzaileak izaten lagundu nahi bazaie, ezaugarri horiek beharrezkoak izango baitituzte herritar euskal eleanitzak izateko. Berebiziko garrantzia du, beraz, Irakasle Eskolek erronka hauei egoki erantzungo dioten irakaslegai euskaldunak prestatzea.

Geure proposamenean batez ere hiru atal garatu ditugu. Hala ere, eta horiekin batera, beste atal hauek landu beharko liratekeela uste dugu:

- **CURRICULUMAREKIKO LOTURA: MATERIALGINTZA**

Euskara Euskal Kulturaren adierazle nagusienetakoa da. Euskarak baditu bere lurraldea eta bere berezitasunak. Beraz, euskararen irakaskuntza euskal kulturaren, eta euskal haurrei loturiko pedagogian txertaturik eskaini beharko litzateke. Jakina da, gainera, horrek motibazioan sekulako eragin positiboa duela. Irakaskuntzan erabiltzen diren materialek, edozein euskarritan aurkezten direlarik ere, alde hori oso kontuan izan beharko lukete.

- **METODOLOGIA**

Ahokotasuna eta interakzioa sustatuko duten metodologietan sakondu beharko litzateke. Talde dinamikak, taldekatze modu berriak eta abar aztertu beharko lirateke. Hizkuntzaren irakaspenaren ikuspegi berri horri erantzungo dion ikas-material egokia behar da: idatzia, ikus-entzunezkoa, teknologia berrietakoa eta abar.

- **HIZKUNTZA BEHAR BEREZIAK DITUZTEN IKASLEAK**

Laguntza-bideak eta indartze-neurriak bereziki aplikatu beharreko taldeak dira. Proposamenean jorratutako arlo guztietan bereziki kontuan izan behar direnak.

- **INGURUNEAREKIKO HARREMANA**

Eskolan jasotako hizkuntzaren jabetze-maila egokia izateko hizkuntzak bere berezko esparruak behar ditu. Eskola ezin dugu uharte isolatu gisa hartu. Eskolaren inguruko ekintzak, espazioak eta jendeak euskalduntzeko eta euskaraz aritzeko behar diren plangintzak ipini beharko dira martxan esparru horietan diharduten gainerako eragileekin elkarlanean: hiztun berrien integrazioarako eta hizkuntzarentzat esparruak irabazteko.

- **BITARTEKOAK ETA BALIABIDEAK**

Ekinbide hauek guztiak, eta horietatik erator litezkeenak, aurrera eraman ahal izateko beharrezkoak direnak: jende baliabideak, ekonomikoak, azpiegiturakoak, antolaketa-koak eta abar.

2.B. ETAPA ETA ZIKLO BAKOITZEAN HIZKUNTZEN ARTEKO DENBORA BANATZEKO PROPOSAMENA

Egun EAEn dugun egoera soziolinguistikoa eta ukipenean dauden hizkuntzen arteko kompetentzia legeak kontuan harturik, euskararen, hizkuntza gutxitua den heinean, ezagutza-maila egokia ziurtatzeko euskarari lehentasuna eman behar zaio eskolan. Hau da, helburua bada euskarak beste hizkuntzekiko berdintasun erreala lortzea, orduan, euskarak eskolako hizkuntza izan behar du. Eta hori horrela baieztatu dute orain arte egin diren probek eta neurketek.

Hala ere, irakaskuntzari eskainitako orduak gehitzeak soilik ez luke ziurtatuko helburua lortuko litzatekeenik; are gutxiago, euskararen erabilera-maila nabarmenki handituko litzatekeenik. D ereduko ikasleen artean eginiko probetako emaitzen arteko aldeek hala erakusten dute, behintzat.

Hortaz, “hizkuntzarekiko zenbat eta esposizio handiagoa, orduan eta ezagutza-maila handiagoa” baieztapena osatu egin beharko litzateke esposizio horren kalitatea zainduz. Hizkuntzak batez ere kualitatiboak direlako, bereziki zaindu beharrekoa litzateke ordu horietan eskaintzen diren hizkuntza edukiak, irakasteko modu intentsiboak eta estentsiboak eta, batik bat, horiek guztiak lantzeko metodologiak.

Gelan hizkuntza curriculumaren aplikaziorako erabiltzen diren metodologiaren gaineko hausnarketa sakona egitea komeniko litzateke. Aspaldi honetan metodologia arloa abandonatu samarturik egon den irudipenak eta gurean testuliburuak hartu duten ia erabateko protagonismoak interakzioaren eta talde dinamikaren garrantzia lausotu egin dute.

Interakzioa —irakaslearen eta ikasleen artekoa, baita ikasleen artekoa ere— sustatuko duten metodologiak eta talde dinamikak diseinatu beharko lirateke. Interakzio horien baitan, mundu sinbolikoak berebiziko garrantzia du. Arlo horretan irakasleek eta ikasleek euskararekiko agertzen duten atxikimendu maila erabakigarria izango da. Taldearen osaerari dagokionez, interakzioa efektiboa izan dadin, denen parte-hartzea bermatuko duen kopuru aldetik talde jasagarria beharko luke. Hizkuntzak ikastearen azken helburua hizkuntza horien erabilera izanik, metodologiak bereziki zaindu beharko luke ahozkotatasuna. Are gehiago euskararen kasuan, hizkuntza gutxitua den neurrian. Horrekin batera, eta hizkuntzaz bere osotasunean jabetzeko, ahozkotatasunarekin batera hizkuntzaren gainerako trebetasunei erreparatu behar zaie: ikusten denari, idazten denari, internetari eta abar. Haur eta gazteek ikasten ari diren hizkuntza bizia dela eta baliagarria zaiela sentitzen eta baieztatzen duten neurrian ikasi eta erabiliko dute. Euskara funtzionala gertatu behar zaie. Eta horretarako, ezinbestekoa da euskaraz hitz egitea, ahozkotatasuna bere zentzu sakonenean lantzea: haurrek eta gazteek euskara bere bizitzako pasadizo eta interesekin lotua izatea. Hizkuntzaren balioa lortzen da komunikazio egoera guztietarako erabilgarria gertatzen den neurrian. Eraginkorrena litzateke hizkuntza instrumentua edo bitartekoa izatea beste zerbait egiteko edo ikasteko.

Bestalde, 0-3 urte arteko haurren ezaugarri psikologikoen inguruan eginiko ikerketen arabera, egiaztatu da haurrek adin horretan hizkuntzak ikaskuntzaz baino jabetzaz bereganatzen dituztela gehiago. Ondorioz, haurrak erraztasun handiagoarekin bereganatuko du euskara etxeko hizkuntza ez den kasuetan ere. Adin horretatik aurrera, beste hainbat mekanismok eta alde psikologikok parte hartzen dute batez ere ikaskuntzaz eskuratzen den hizkuntzaren irakaskuntzan. Adinean zenbat eta aurrerago hasi euskara irakasten, orduan eta konplexuagoa izango zaio hizkuntza bereganatzea haurrari. Hala baieztatzen dute hemen eta hemendik kanpo egindako hainbat ikerketek. Horra hor, 0-3 urteko haurren euskalduntzea hain indartsu azpimarratzeko arrazoia.

Halaber, adin horretako haurraren mundu sinbolikoa eratzen ari den horretan, afektiboki euskarara hurbiltzea errazagoa izango da. Eta haurra euskarara afektiboki hurbiltzeak, zalantzarik gabe, euskararekiko atxikimendua estutzea eta ondorengo ikasketa bidea leuntzea lekarke. Gainera, hizkuntza pertsona jakin batzuekin eta leku jakin batzuekin identifikatzeak berebiziko garrantzia du oraindik orain, euskarak soziolinguistikoki pairatzen duen egoera dela-eta.

Etxeko hizkuntza, berriz, oso kontuan hartzeko ezaugarria da. Ikaslea onartua sentituko da bere hizkuntza eta kultura baloratzen diren neurrian, eta hori erabakigarria da ikasle horrek izango duen euskararekiko jarreran.

Lehenago aipatu dugun afektibitate arloarekin zerikusi zuzena du. Ikasle etorkina onartua eta errespetatua den heinean egongo baita motibatua euskararen ezagutzarako eta euskal kulturaren pertaide izateko.

Eskolako hezkuntza proiektuan etorkinen hizkuntzak eta kulturak ikuspegi integralean jaso beharko lirateke. Eskola bakoitzak, egoeraren arabera, sentsibilizazio-plan bat egin beharko luke.

Horiek guztiak kontuan, honako proposamena luzatzen dugu etapa eta ziklo bakoitzean hizkuntzen arteko denbora banaketarako:

2.B.1. HAUR HEZKUNTZA

2.B.1.1. Murgiltze- eta mantentze-ereduen bidez euskara eskola hizkuntza izatea.

Baita eskolaz kanpoko jarduera guztiak ere euskaraz izatea.

2.B.1.2. Langile guztiak euskaldunak izatea bermatzea. Ahalegin berezia egin beharko da langile hauek prestatzeko eta zaintzeko.

2.B.1.3. Euskararen irakaskuntzan bereziki zaintzea metodologia, baliabideak eta pertsonarekiko identifikazioa.

2.B.1.4. Pertsona/espazioa/hizkuntza identifikazioa funtsezkoa izanik eskolak eta bertako langileek euskara bereziki zaintzea.

2.B.1.5. Taldearen osaera kopuru aldetik jasangarria izatea. Hizkuntza intentsiboki lantzeko, interakzioa baldintza hoberenetan gara dadin, ikasle guztien parte-hartzea ziurtatu behar da. Taldea kopuru aldetik osatzerakoan irizpide malguak erabili behar dira; hala nola, taldeak zatitzerakoan, antolatzerakoan, irakasle laguntzaileak ipintzerakoan eta abar.

2.B.1.6. 0-3 urteko eskaintza euskaraz eskatzen duten guztiei zabaltzea. 0-3 urteko zikloa aipatu nahi dugu bereziki haurren mundu sinbolikoa orduan eraikitzen ari baita. Afektibitateak ere berebiziko garrantzia du, haurrak euskarara eta euskal kulturara goxotasunez eta maitasunez hurbiltzen baditugu, horrek oinarri sendoak eskainiko baitzizkigu aurrera begira, eta euskararen hurbiltze- eta ikaste-bidea asko samurtuko du. Beraz, hezitzaileek bereziki zaindu beharko dute harreman afektiboen kalitatea. Lehen aipatu dugun bezala, afektiboki asebetetzen duten harremanak garatzen badira euskaraz, motibagarria izango baita haurrentzat eta euskararekiko izango duen jarreran eragin positiboa izango du.

2.B.1.7. Hezkuntza-politikan aldaketa bat egitea 0-3 zikloarekiko. Komeniko litzateke jendarteari ziklo hau euskararako eta euskal kulturarako hurbilpen gisa aurkeztea. Egun erdiz, gutxienez, eskola daitezke haurrak xede horretarako. Bestalde, kontuan izan behar dugu B1 eta B2 proben azterketan ondorioztatu den legez familien egoera sozioekonomikoak eragin handia duela, eta euskara ezagutzen ez duten familiak direla maila sozial baxuenetan daudenak, hain zuzen. Beraz, egun dauden diru kuotei eutsi behar bazaie beka-sistemak berraztertu eta hedatu beharko dira.

2.B.1.8. Ingelesaren edota frantsesaren irakaskuntzari dagokionez, hizkuntzaren irakaspenean goiztiarrarekin hastea. Nahiz eta gure eskoletan gaur egun nahiko orokortua egon 4 urtetik aurrera irakaskuntza goiztiarrarekin hastea, eskola bakoitzak erabaki beharko du, bere hizkuntza proiektuan aurreikusten duen heinean, irakaskuntza goiztiarra garatzen hastea edo ez, eta zer adinetan.

2.B.1.9. Hizkuntzen aurrebaluazio glotobiografikoa egitea. Etapa honen amaieran hau da, HH5en amaieran, ikasleei hizkuntzen aurrebaluazio glotobiografikoa egingo zaie. Hori izango da oinarri ikasle bakoitzak behar dituen indartze-neurriak eta laguntza-bideak ezagutzeko eta diseinatzeko. Berandu eskolatutako ikasleen kasuan, eskolatzerakoan egin beharko litzake aurrebaluazio hori.

2.B.10. Etxeko hizkuntzari dagokionez, hizkuntza eta kultura aintzat hartzea. Haurraren hainbat agur eta abesti, ahal bada behintzat. Horrezaz gainera, bere herrialdeko giroa egin daiteke gelan.

2.B.2. LEHEN HEZKUNTZA

LEHEN ZIKLOA: 1. ETA 2. MAILA (6-8 urte)

2.B.2.1. Murgiltze- eta mantentze-ereduarekin jarraitzea. Beraz, irakurketa/idazketa prozesua ere euskaraz burutzea. Ahozotasunaren lanketa bermatu.

2.B.2.2. Eskola inguruko ekintza guztiak euskaraz izango direla ziurtatzea. Eskola barrukoak, eskolaz kanpokoak, aisialdia eta abar.

2.B.2.3. Taldeen osaerari dagokionez, euskara indartzeko edo intentsiboki lantzeko kalitatezko interakzioa bermatuko duen kopuru aldetik talde jasangarriak osatzea.

2.B.2.4. Ingelesaren edota frantsesaren irakaskuntza, berriz, ikastetxeak bere hizkuntza proiektuan aurreikusten duen heinean garatzea.

2.B.2.5. Etxeko hizkuntzari dagokionez, eskolak onartutako sentsibilizazio-plana jarraitzea.

BIGARREN ZIKLOA: 3. ETA 4. MAILA (8-10 urte)

2.B.2.6. Murgiltze- eta mantentze-eredua jarraitzea. Ahozkotasunaren lanketa bermatu.

2.B.2.7. Ongi finkatzea bi ziklo hauetan euskararen inguruan egin beharreko lana. Garrantzitsua da azken bi ziklo hauetako hizkuntza-helburuak ongi finkatzea, hurrengo ziklotik aurrera ikasle guztiak gutxieneko hizkuntza-maila izan dezaten denak elkarrekin euskara intentsiboki landu ahal izateko.

2.B.2.8. Gaztelania ikasgai gisa hastea.

2.B.2.9. Ingelesaren edota frantsesaren irakaspena ikastetxeak bere hizkuntza-proiektuan aurreikusita duen heinean egitea.

HIRUGARREN ZIKLOA: 5. ETA 6. MAILA (10-12 urte)

2.B.2.10. Euskara irakaskuntza ardatz izaten jarraitzea. Ahozkotasunaren lanketa bermatu.

2.B.2.11. Gaztelania *Lengua* ikasgaiaren bidez jasotzea legeak agintzen duen ordu kopuruan.

2.B.2.12 Atzerriko hizkuntza. Ingelesari edota frantsesari dagokionez, ikastetxe bakoitzak autonomia izatea bere hizkuntza-proiektuan hizkuntza horrentzat garatu nahi duen ibilbidea diseinatzeko.

2.B.2.13. Ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren arabera, laugarren hizkuntza baten irakaskuntzarekin hastea. Ziklo honen amaieran B1 proba egin beharko dute, euskaraz eta gaztelaniaz.

2.B.3. DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA**LEHENENGO ETA BIGARREN ZIKLOA (12-16 urte)**

2.B.3.1. Murgiltze- eta mantentze-ereduekin jarraitzea. Hizkuntzaren gainerako trebetasunekin batera, ahozkotasunaren lanketa bermatu kalitatezko interakzioa eskainiz. Kontuan izanik adin honetan euskararen erabilerak izaten duen jaitsiera nabarmena, estrategia eta plangintza bereziak landu. Euskarak funtzionala izan behar du: komunikazioak izan behar du irakaskuntza /ikaskuntzaren estrategia nagusia, komunikazioak testuinguru aberatsa behar du eta hizkuntzaren erabilerak esanguratsua izan behar du. Bestalde, hizkuntzak baliabidea edo instrumentua izan beharko luke beste ikasgai bat ikasteko. Ondorioz, hizkuntzak ikaslearentzat balioa izango du beste ikasgai bat bereganatzeko erabilgarria zaion neurrian.

2.B.3.2. Taldearen osaera kopuru aldetik jasangarria izatea. Hizkuntza intentsiboki lantzerakoan kalitatezko interakzioa bermatzeko irizpide malguak erabili behar dira: taldeak kopuru aldetik osatzerakoan, taldeak zatitzerakoan, antolatzerakoan, irakasle laguntzaileak ipintzerakoan eta abar.

2.B.3.3. Gaztelania legeak agintzen duen ordu kopuruaren arabera.

2.B.3.4. Atzerriko hizkuntza. Ingelesari edota frantsesari dagokionez, ikastetxeko hizkuntza proiektuaren arabera, ikasgai bat ingelesez edota frantsesez ematea.

2.B.3.5. Ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren arabera, laugarren hizkuntzarekin lanean jarraitzea edo beste kasuetan hastea.

2.B.3.6. Hautazko hizkuntza ikaslearen etxeko hizkuntza izatea.

2.B.3.7. Ordu osagarriak. Curriculum dekretuak ikasgai bakoitzerako ezartzen dituen gutxieneko orduak bete ondoren, geratzen diren orduak B1 proban edo ikastetxeak egin ditzakeen beste neurketetan antzemandako hizkuntza premiak indartzeko erabiltzea. Zentro bakoitzaren esku geratuko litzateke ordu horien kudeaketa, beharren arabera. Proben emaitzak eskuan, orduan jakingo da hiru hizkuntzetatik zeinek behar dituen indartze neurriak eta xede horretarako erabil daitezke ordu horiek

2.C. HIZKUNTZA PORIKETUA ABERASTEKO IKASTETXE GUZTIEK IZAN BEHAR DITUZTEN PRESTAKUNTZA-JARDUERA ASKOTARIKOAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum dekretuak lehenetsuna ematen dio hizkuntzen trataerari. Horretarako, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Markoa da esparru testuingurua. Jendartearen errealitate soziolinguistikoarekin eta soziokulturalarekin bat egiteko, testuinguru eleanitzari erantzungo dion legea sortu nahi da; hala, azken xedea da ikasleek behar bezala ikas ditzatela bi hizkuntza ofizialak eta atzerriko hizkuntza bat edo bi. Xedea gehiago zehazte aldera, esango genuke derrigorrezko hezkuntza amaitzean ikasleek euskaldun eleaniztunak izan behar dutela.

Hitzetik hortzera dabil eleaniztasun hitza, baina, askotan, curriculumean dagoen hizkuntza kopurua adierazteko izaten da. Horrela, hizkuntzei dagozkien helburuak, edukiak eta metodologia planifikatzerakoan, hizkuntza bakoitzarena bere aldetik egiten da. Gainera, maiz, hizkuntza bakoitzean desberdinak izaten dira edukiak hizkuntzako irakasleek duten hizkuntzaren eta irakaste/ikaste prozesuaren errepresentazioaren arabera. Gehienetan, beraz, hizkuntza bakoitzaren irakaspenean metodologia bat erabiltzen da, hizkuntza bakoitza modu desberdinean ikasten dela pentsatzen baita.

Ez dugu ahantzi behar hizkuntzen artean loturak daudela, eta lotura horiek, gainera, oso garrantzitsuak direla.

Lan egiteko erari dagokionez, hizkuntzako irakasleek, hizkuntza ezberdinetako irakasleek, beren artean koordinatu beharko lukete edukiak, metodologia edo hizkuntza jardueraz aritzeko eta horiek adosteko. Elkarlan horren ondorioz, hizkuntza bakoitzean ikasitakoa beste hizkuntzetara transferituko litzateke eta beste hizkuntzetan erabili ahal izango litzateke: curriculumeko beste hizkuntza batean landutakoa ez litzateke errepikatuko, beraz, beste hizkuntzetan.

Zalantzarik gabe, eskolak gehien eragin dezakeen arloa kurrikularra da. Gela barruan egiten diren jarduerak hizkuntzaren erabilera bultzatu beharko lukete, ez litzateke bereizketarik egin beharko hizkuntzaren ezagutzaren eta erabileraren artean. Ez dezagun ahantz, hizkuntzak horiek guztiak baliatzen diren neurrian eskuratzen direla. Bide batez, hausnartu beharko litzateke hizkuntza arloaren antolaketaz gainera, beste jakintza arloek ere hizkuntzak eskuratzeko egin dezaketen ekarpenaz.

Ikerketen arabera, hizkuntzak hobeto garatzen dira jakintzarekin batera; hau da, pertsonok hobeto ikasten dugu hizkuntza beste zerbait ikasten dugun bitartean.

Metodologiari dagokionez, hedatu beharreko ikuspegi metodologikoan ahozko komunikazioak izan beharko luke irakas/ikaskuntzaren estrategia nagusia. Edonola ere, komunikazio horrek hizkuntzaren eskuratzea eta erabilera ahalbidetu ahal izateko, komunikazio testuinguru aberatsa eskaini beharko du, hizkuntzaren erabilera esanguratsua izan beharko du, kalitatezko interakzioa ahalbidetu beharko du eta hizkuntzari buruzko hausnarketa kontuan izan beharko du. Adituen arabera, gaitasun eleaniztuna ez da hainbat gaitasun elebkarren batura; izaera propioa du eta jendarteak sortzen dituen behar komunikatiboen arabera garatzen da; hau da, egoera komunikatiboaren, gaiaren, hartzailearen, helburuaren, eta abarren arabera.

Euskararen erabilera eta hizkuntzen eskuratzea zein erabilera indartzeko, gela barruko zein gelaz kanpoko jarduerak uztartzeko, eta era koherentean garatzeko, marko egokia eraiki beharko litzateke. Marko horretan, ikastetxean diren hizkuntza guztiak hartu beharko dira kontuan; bakoitzarekin ditugun helburuak definitu egin beharko dira eta xedek lortu ahal izateko ikastetxearen jarduera osoa hartu beharko da kontuan. Ikastetxeak, kokatuta dagoen jendarte eragileekin askotariko egitasmoak partekatu beharko lituzke eta jendartean euskararentzat espazioak irabazi beharko lituzke. Hizkuntzaren normalizazioa lortzeko, ekintza isolatuak baino planteamendu sistematikoan oinarritzen diren plangintzak dira eragingarriagoak. Ikastetxeek Hizkuntza Normalkuntza Plana behar dute, hizkuntzen inguruko egitasmo horiek guztiak bildu eta uztartzeko. Eta plan horrek behar duen eraginkortasuna izan dezan arduradun iraunkor eta prestatua beharko du. Horretan laguntzeko, hizkuntzen erabilera eremuak aurreikustea garrantzi handikoa da; hau da, eremu pedagogikoa eta eremu instituzionala.

Euskara ikasleek gustuko dituzten jarduerekin lotzeko urratsak eman behar dira. Horretarako, ikastetxe bakoitzak eremu horretan zer egiten ari den jaso beharko du Hizkuntza Normalkuntza Planean, zein hizkuntza baliatuta, nolako bitartekoekin, halakoetan ari direnek zein prestakuntza duten, eta beste bildu beharko du. Halaber, burutzen dituen edo burutu gabe arrakasta izan dezaketen jarduerak identifikatu beharko ditu ikastetxeak bere planean. Datu hauek baliatuta, besteak beste, helburuak definitu, hutsuneak non dituen antzeman, begiraleen prestakuntzarako orientabideak zehaztu, gainerako zerbitzuetako (jantokia, autobusa eta abar) profesionalen prestakuntzarako eta aukeraketarako irizpideak finkatu, eta abar egin beharko ditu. Betiere, kontratatzen diren langile guztiek frogatu beharko dute beren lana euskaraz gara dezaketela. Azken erantzulea Administrazioak izan behar du. Irizpide hauek euskararen erabilera indartzeko helburua duen Hizkuntza Normalkuntza Planean jaso beharko ditu eta honako atalak gaineratu beharko litzekiote: eremua eta etapa helburuak, ekintzak, azpiekintzak, burutzeko behar den denbora, arduradunak, baliabideak, eta aurreikusten diren ebaluazio adierazleak.

Era berean, euskararen erabilera indartzeko helburua duen egitasmoan hizkuntza paisaia zaintzeko orientabideak, eskolako inprimaki, batzar, estatutu, ohar, idatzi zein bestelakoetarako hizkuntza irizpideak ezarri, eta horien jarraipena egiteko mekanismoak zehaztu beharko lituzke. Halaber, ikastetxeak kokatuta dagoen ingurunean ere euskararen erabileraren aldeko giroa sortzeko asmoz, zerbitzuak kontratatzeko zein hizkuntza irizpide baliatuko duen ere erabaki beharko luke. Kontratatzan dituen langile guztiek beren egitekoa euskaraz gara dezaketela bermatu behar du. Azken ardura Administrazioarena izango da. Gelaz kanpoko euskararen erabilera indartzeko xedea duten egitasmoek eremu pedagogikoaren arlo ez kurrikularra eta arlo instituzionala hartuko lituzkete, batez ere, baina ez bakarrik.

Familia giroan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak indartzeari dagokionez, eskolek gurasoen artean euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko egitasmoak bideratu beharko lituzkete, euskaltegiekin lankidetzan, teknologia berriekin osatuz. Hala, gurasoek euskara gauzak egiteko baliatzen duten neurrian eskuragarriagoa izango lukete, seme-alabak etxerako lanekin doazenean laguntzeko aukerak izango lituzkete eta familia giroan euskararen erabilera indartzen joateko urrats sendoak egingo liriateke, besteak beste. Eskolek gurasoen euskara eskuratzeko, hobetzeko, eta hezteko erabakigarria den ekarpena egin dezakete, bide batez, euskararen erabileran ikaragarri lagunduz. Ikastetxeko hizkuntza proiektua hizkuntzekiko esku-hartze eremuen arabera antolatu beharko litzateke, honek eskolaren komunikazio-testuinguruaren ikuspegi sistemikoa eskaintzen baitu, eragile eta esparru askotarikoen arteko interakzioa eta koherentzia ziurtatzeko bide emanez. Esparru eta talde horiek guztiak kontuan izan beharko dira ikastetxe guztiek izan behar duten hizkuntza proiektua aberasteari begira askotariko prestakuntza jarduerak diseinatzerakoan.

2.C.1. DISKURSOAREN DAGOZKIONAK

2.C.1.1. Diskurtso bat sortzea eta zabaltzea jendartean, argumentarioa. Euskara jakiteak dakarren onuren inguruan, motibazioa aktibatu behar da esparru guztietan. Hezkuntza alorrean, zehazki, balio beza azken urteetan langileen artean zabaltu diren zalantzak uxatzeko, gurasoen motibazioa sustatzeko eta abarretarako.

2.C.1.2. Euskal Herriko hezkuntza planteamendua kultura aniztasunean eta eleaniztasunean ardaztea. Euskal kultura ardatz, horren inguruan ukipen kulturak, Euskal curriculum, Europako kultura eta kultura unibertsala uztartzea. Era berean, berandu eskolatutakoen ukipen kulturak uztartzen dituen curriculum integratzailea egin beharko litzateke.

2.C.1.3. Euskara komunikaziorako tresna eragingarria bihurtzea: hiztunentzat beharrezkoa eta hiztun gaientzat erakargarria. Eskola barruan eta eskolak eskolatik kanpo eragin dezakeen esparruetan.

2.C.2. IRAKASLEEN PRESKUNTZARI DAGOZKIONAK

2.C.2.1. Ikastetxeetan formazio planak abian jartzea. Ikasleengan benetako gaitasun eleaniztuna suspertzeko eta ikasleei hizkuntza formazio eraginkorra eskaintzeko.

2.C.2.2. Irakasleei hasierako eta etengabeko prestakuntza ematea. Irakasleek euskara “ona” erabil eta euskara “ondo” irakats dezaten. Horretarako, prestakuntza programak xede horiek lortzeko egokitu beharko liriateke, eta behar den kasuetan berriak sortu. Prestakuntzak kurrikularra eta metodologikoa izan behar du. Hizkuntza erabileran eta motibazioan gela barruko komunikazio baldintzek duten eragina bistakoa da; ondorioz, interakzio didaktikoak kalitatezkoak izateko estrategiak eskaini beharko zaizkie irakasleei, baita ikasleen euskararen erabilpena suspertzeko estrategiak ere. Gainera, euskararen ezagutza tekniko hori guztia euskal kulturaren ikuspegi orokorrean oinarrituta lortu beharko litzateke.

2.C.2.3. Irakasleen eguneroko jardunaren gainean hausnartzea. Irakasleen irizpideetan eragin behar da, horien arabera egiten baitituzte haien jardunaren gaineko hautuak. Zaindu behar da irakasleek zein espektatiba dituzten. Beren praktikaren inguruan hausnartzen lagundu behar zaie, praktika egokien adibideak eskaini... irakasleak duen rola garrantziaz kontzientziatu beharko luke.

2.C.2.4. Curriculumeko eremu bakoitzerako testu motak. Hizkuntza proiektuaren arabera, ikastetxe bakoitzeko curriculum diseinatzerakoan eremu bakoitzeko testu motak definitzea. Jakintza arlo bakoitzeko testu motei dagozkien ulermen eta ekoizpen prozedurak ere zehaztu behar dira. Horrekin batera, eta erabili beharreko trebetasunen arabera, testu mota bakoitzarekiko landu beharreko baliabide linguistikoak ere zehaztu beharko dira.

2.C.2.5. Etapa eta zikloen artean koordinatzea. Hizkuntza helburu komunak ipini, estrategiak (metodologia, ebaluazio irizpide eta abar) konpartitu eta loturak eraikitzeke.

2.C.3. IKASLEEI DAGOZKIENAK

2.C.3.1. Ikasleek diseina ditzaketen egitasmoak laguntzea. Ikasleak hizkuntza proiektuko subjektu izanik batez ere, haiek antola ditzaketen ekintza eta ekimenetarako baliabideak eskaini, lagundu, eta orientabideak eskaini.

2.C.3.2. Ikasleen eskolaz kanpoko jardunak euskaraz. Ikasleen eskolaz kanpoko bizitzan euskarak ahalik eta erabilpen handiena izan dezan dauden egitasmoak euskaraz eskaintzea eta berriak abian jartzea. Euskararen erabilera indartu asmo duten egitasmoak eragingarriak izateko ikastetxe osoaren jarduera kontuan izatea. Eskolaz kanpoko jardueretan euskararen erabileran urrats sendoak ematea.

2.C.4. HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PLANARI DAGOZKIONAK

2.C.4.1. Hizkuntza Normalkuntza Plana instituzionalizatzea. Plan horrek instituzionalizazioaren beharra du bere maila guztietan, eranskina izatetik gunea izatera iritsi nahi badu, behintzat: goi-mailatik hasi eta eskola mailaraino.

2.C.4.2. Ikastetxeetan Hizkuntza Normalkuntza Planak sustatzea. Curriculumak hizkuntza proiektua jaso du bere baitan. Hala ere, proposamen honetan aipatu diren alde guztiak ahalik eta gehien jasotzeko ezinbestekoa da ikastetxeak bere hizkuntza proiektu barruan Hizkuntza Normalkuntza Plana jasotzea. Eskolek plan hori eratzea legez arautu beharko litzateke, eta gauzatzen dutenei pizgarriak eman beharko litzateke; dirulaguntzak emanez, adibidez.

2.C.4.3. Hizkuntza Normalkuntza Planeko ardurak antolatzea eta finkatzea. Plan horrek ikastetxeko partaide guztien artean adostutakoa izan beharko luke, eraginkorra izate aldera. Plan horrek eskuduntzak izango dituen eta erantzukizuna izango duen arduradun bat beharko du. Pertsona horrek, lan horretarako prestakuntza izan beharko du. Pertsona hori eskolako hizkuntza proiektua dinamizatzeaz arduratuko da. Lana behar den bezala burutzeko behar diren orduak ezarriko dira eta beste ardurak kenduko zaizkio. Lanak duen garrantzia, dimentsio eta ardura adinako dedikazioa eskainiko zaio.

2.C.4.4. Hizkuntza Normalkuntza planaren arduradunaren funtzioak zehaztea. Arduradun horrek, besteak beste, eginbehar hauek izango lituzke:

- A.** Hizkuntza proiektuari dagozkionak:
- Hezkuntza komunitateko partaideekin adostutako hizkuntza proiektua proposatu, burutu, dinamizatu eta ebaluatu.
 - Hizkuntza proiektuan parte hartu eta koordinatu.

- Hizkuntza proiektuan aurreikusitako neurketak bultzatu, bideratu, gainbegiratu, ondorioak atera eta behar diren indartze neurriak eta laguntzabideak proposatu.

B. Hizkuntza Normalkuntza Planari dagozkionak:

- Hezkuntza komunitateko partaideekin adostutako Hizkuntza Normalkuntza Plana proposatu, burutu, dinamizatu eta ebaluatu.
- Planean jasotako ekimenen arduradunak, jarduerak eta epeak zuzendu.
- Eskolako gainerako plangintzetako arduradunekin eta aisialdiko ekintzetako arduradunekin koordinatu.
- Eskolaz kanpoko eta aisialdiko ekintzez arduratzen diren eragileekin, Berritzeguneko teknikariarekin eta Udal planetako arduradunekin koordinatu.

2.C.4.5. Aisialdiko euskara arduradunaren eta Hizkuntza Normalkuntza Planeko arduradunaren arteko koordinazioa bermatzea.

2.C.4.6. Euskararen erabilera areagotzeko azterketa. Euskararen erabilera areagotzeko oztopoak eta etenak identifikatzea eta gainditzeko estrategiak zehaztea. Besteak beste, hezkuntza komunitatearen harreman sareetan (ikasleen artean, ikasle eta langileen artean, familian eta abar.) euskararentzat espazioak sortu eta mantentzea.

2.C.4.7. Erabileran eragiteko egitasmo osatua zehaztea. Egitasmoa zehazteko hiru urrats hauek har daitezke kontuan: ikastetxean kontuan hartu beharreko hizkuntzen erabilera eta trataeraren diagnostikoa egitea; helburuak definitzea eta horietara hurreratzeko beharrak eta lehentasunak antzematea; eta behar eta lehentasun horiei erantzuteko lan estrategiak eta plangintza zehatzak definitzea.

2.C.4.8. Hezkuntza Komunitateko partaideen artean euskararekiko jarrerak bateratzea. Bateratu hezkuntza komunitateko partaideen artean ikasleak euskaraz hitz egiteko mekanismoen, gonbidapenen, exigentzien... maila eta modua. Guztiok euskararekiko jokaera ahalik eta bateratuena izateko. Helburu nagusia kontzientzia, motibazioa eta erabilera suspertzea da.

2.C.4.9. Ikastetxeak jendarte eragileekin askotariko egitasmoak partekatzea eta jendarte euskararentzat espazioak irabaztea. Hezkuntza komunitatea osatzen duten kideentzat arnaguneak eratze horretan kokatuta dagoen ingurua kontuan izan behar du. Xede horretarako hiru irizpide hartu beharko lirake kontuan: leku bakoitzean euskararen belaunaldiz belaunaldi transmisio sendoena bermatu dezaketen ekimenak eta proposamenak aukeratu eta lehenetsi; ekimenak lehenesteko unean, egingarrietatik hasi; erdal mundua ere, modu batera edo bestera, euskalgintzaren gurpilera hurbiltzen saiatu.

2.C.4.10. Orain arteko esperientzien eraginkortasuna ebaluatu eta eraginkorrak diren heinean zabaltzea. Burutu diren edo burutzen ari diren hainbat programek izan dituzten ondorioak neurtu beharko lirake, emankorrak izan diren kasuetan hedatzeko. Adibidez: Ulibarri programa, Euskaraz Bizi eta beste.

2.C.4.1.. Hizkuntza Normalkuntza Planen sozializazioa lantzea. Eskolak Hizkuntza Normalkuntza Planaren bidez ongi landu beharko du sozializazioa, hizkuntza sozializazio ikuspuntutik ikusita.

2.C.4.12. Sare tekniko egonkorra osatzea. Berritzeguneko teknikarien artean egonkortasuna bermatzea arlo horretako lanean urte batzuetako konpromisoarekin. Ezinbestekoa da teknikari horiek ikastetxeetara joatea eta haiekin elkarlanean aritzea.

2.C.4.13. Askotariko prestakuntzaren behar kualitatiboak eta kuantitatiboak zenbatzea. Ikastetxe guztiek izan behar duten hizkuntza proiektua aberasteko askotariko prestakuntza jarduerak premia kualitatiboak eta behar kuantitatiboak dituzte. Aipatu hezkuntza komunitateko taldeak euskaldunez hornitzeko jendea behar da. Lehenik beharko den jende euskaldunaren kopurua zenbakitan ipini beharko da, eta premia horien azterketa kualitatiboa egin. Profilen zerrenda osatu beharko litzateke; bakoitzak, betetzen duen funtzioaren arabera prestakuntza beharrak izango ditu: ahozko adierazpenetik, hizkuntzaren irakaskuntza intentsibora bitartekoa, euskarako irakasle teknikoentzat.

2.D. B2 HELBURUA EGOKI NEURITZEKO EBALUAZIO-TRESNAREN DISEINUA

Proposamen honek espero zitezkeen emaitzak lortzen ari dela baieztatzeko ezinbesteko adierazlea da ebaluazioa. Edozein plangintzak, zer esanik ez hezkuntza arloan garatzen denak, ebaluazioaren beharra du. Ez da ebaluazioa helburu gisa ikusi nahi, baizik eta tresna hezitzaile gisa. Eta ebaluazioaren egitekoa izango da, tresna den heinean, abian ipini diren eta dauden plangintzen egokitasuna aztertzea. Azterketa horrek esango du plangintzak ipinitako helburuei erantzuten dien, edo erantzuten jarraitzen dion; hutsuneak agertzen ote dituen, ondorioz, egokitzapenak egitea ahalbideratuko du; edo zaharkitua edo baliogabetua geratu den, plangintza eta ekimen berrietan saiatzeko garaia izango da, orduan.

Ebaluazio-mota asko izanik, proposatzen dena izaera formatiboa eta deskriptiboa izango duena eta jarraia izango dena da: hutsuneak non dauden detektatu ahal izateko, eta, beraz, laguntza-bideak eta indartze neurriak non ipini beharko diren agerian uzteko. Ebaluazioak, hortaz, ipinitako helburuek eta diseinatutako plangintzek duten garapena eta eraginkortasuna neurtzeko tresna gisa baliatu eta hizkuntzen irakaspenaren eta ikaspenaren benetako egoera erakusteko balio beharko luke. Ebaluazioak hainbat euskarri beharko ditu, eskuhartzeak izango duen izaera adinakoak: zenbaitetan ebaluazioak kanpokoa beharko du, hainbatetan kanpoko proba estandarrak izango dira, eta beste batzuetan ikastetxeak berak bideratutako neurketak izan beharko dute.

Ebaluazioa eraginkorra izan dadin lehen baldintzak zer ebaluatu behar den jakitea izan beharko du. Horretarako, hizkuntza proiektua ezinbestekoa da. Bertan, maila eta etapa bakoitzerako hizkuntza helburuak mailakatuak eta zehaztuak egon behar dute; curriculum proiektuak ikaskuntza prozesua zehazteko eta sekuentzializatzeko funtzioa baitu. Eskola bakoitzak hizkuntza proiektu hori garatzeko erantzukizuna izango luke legeak ezarritako ebaluazioei erantzun ahal izateko. Horrekin batera, gelan barruan gertatzen dena ebaluatu beharko litzateke. Ikasleen ekoizpenaren ebaluazio soila egiten bada, nekez neurtu ahal izango baitira hizkuntza proiektuan jasotako irizpideak eta ikaste prozesuan haien aplikazioak egokienak diren ala ez. Azkenik, ebaluazioak ikaslea bere osotasunean izan behar du kontuan.

Ebaluazioa burutu ostean, proben emaitzen tratamendua letorke. Tratamendu horrek ere izaera hezitzailea izan beharko du ezinbestean, eta bere helburu behinena laguntza-bideak edo ondorioztatzen diren ekimen eta plangintzak lehenbailehen abian ipintzea beharko luke. Betiere, azken helburua hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa modu egokienean garatzea izango delarik. Proba horien emaitzei lan tresna edo adierazle izaera eman beharko litzaieke, euskalduntzearen eta euskararen erabileraren inguruko ikerketen oinarri izan daitezen, eta markoaren eraginkortasuna optimizatzeko lan tresna bilaka daitezen.

Bestalde oso garrantzitsua da ebaluazio horien emaitzen erantzukizunak ongi mailakatzea eta bereiztea. Zenbaitetan erantzukizuna norbanakoarena izango da, beraz norbanakoaren inguruabarra aztertu beharko da eta haren gainean hartu neurri akademikoak eta ipini laguntza-bideak, hala behar den kasuetan. Beste batzuetan erantzukizuna kolektiboa izango da. Kasu horretan administrazioari esku-hartzea eskatu beharko zaio. Administrazioak berandu baino lehen aztertu beharko du ikastetxe horretako hizkuntza proiektua, erabiltzen den metodologia eta emaitza desegokiak nondik eratortzen diren detektatzen saiatu beharko luke. Ondoren, kasu bakoitzari dagozkion ekimenak ipini beharko ditu abian: neurri zuzentzaileak edota laguntza-bideak, kasuan kasuko. Erantzukizun kolektiboa denean, behar diren mekanismoak abiaraziko dira kaltetutako ikasleek baldintza egokiagotan ebaluatuak izan daitezen. Horrek guztiak elkarlana behar du Administrazioaren, hezkuntza sektoreko eragileen eta jendartearen artean.

Ebaluazioak, beraz, hausnarketa sakona eskatzen du: izaeran, diseinuan, kudeaketan, tratamenduan eta jarraipenean. Markoaren garapenetik haratago, egun dauden datuekin jakina da jada non eragin behar den eta non aplikatu behar diren laguntza-bideak eta indartze neurriak. Beraz, ez dago zertan itxaron neurri horiei, berandu baino lehen abian jartzeko.

Jarraian azaltzen den B2 helburua egoki neurtzeko ebaluazio tresnaren diseinuaren proposamenak horiek guztiak besarkatu nahiko lituzke:

2.D.1. NEURKETA ZEHATZAK

2.D.1.1. Haur Hezkuntzaren amaieran, hau da HH5en azken hiruhilabetekoan, haurrak hizkuntzetan duen gaitasuna ebaluatzea. Haurraren hizkuntzen aurrebaluazio glotobiografikoa: Ebaluazioa bi hizkuntza ofizialen gainean eta baita ikastetxeak bere hizkuntza-proiektuan duen hizkuntzan ere egingo litzateke, atzerriko hizkuntzaren irakaspen goiztiarra jasota duen kasuan. Haurraren hizkuntzen ezagutzaren azterketa horretan, haurraren entzumen- eta adierazmen-mailak ebaluatuko dira. Azterketa honen helburua haur bakoitzaren hizkuntza bakoitzarekiko maila ezagutzea litzateke. Ondorioz, hizkuntza bakoitzean eta gaitasun bakoitzean indartze neurriak behar dituen eta zer motakoak eta nolako maiztasunez behar dituen aurreikustea da. Azterketa honek balioko luke, era berean, hizkuntza bakoitzean taldeak duen maila ezagutzeko, eta, beraz, hizkuntza horretan edo horietan taldeak beharko dituen ekinbideak eta tratamenduak abian jartzeko: interakzioa eta ikasle guztien parte-hartzea ziurtatuko duten ratioak: ikasleko eta irakasleko; talde antolaketak eta dinamikak: taldea bitan banatzea hizkuntza intentsiboki lantzean, taldekatze malguak, irakasle laguntzaileen errefortzua; eta abar.

2.D.1.2. Aurrebaluazio honen instrumentua aurrerago proposatzen den fundazioak diseinatzea. Tutoreak egingo luke proba, eta teknologia berriak erabiltzea proposatzen da adierazmeneko neurketa egokiago egin eta ebaluatu ahal izateko.

Ondoren, material hori erabilgarria gerta liteke haur bakoitzaren hizkuntza garapena aztertzeko.

Glotobiografikoa, edozein kasutan, haurra matrikulatu ondoren egingo da, matrikulatu den ikastetxearen ardurapean.

2.D.1.3. Entzumena, mintzamena eta irakurmenaren ebaluazioa. 8 urterekin, Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloaren amaieran, entzumena, mintzamena eta irakurmena ebaluatzea proposatzen da. Neurketa hau bi hizkuntza ofizialetan eta ikastetxeak bere hizkuntza-proiektuan dituenetan egingo litzateke. Neurketa horiek ikastetxe bakoitzak egingo lituzke. Bestalde, erreferentziazko proba estandarra eskaini beharko litzateke, hau da, ikastetxe guztientzat berdina. Proba hauek ikastetxeko **Hizkuntza Normalizazioko arduradunak** bideratu eta kudeatu beharko lituzke.

2.D.2. EBALUAZIOAREN IZAERA ETA GAUZATZEA

2.D.2.1. Ebaluazioa hezitzailea eta jarraia izatea. Gardena eta konprometitua. Ebaluazioaren helburua sistema hobetzeko tresna izatea.

2.D.2.2. Hizkuntza-ebaluazioa molde bakarrekoa izatea. Proba horretan hainbat hizkuntzen ezagutza neurtu behar den arren, ebaluazioak bakarra eta pertsona bere osotasunean hartuko duena izan behar du.

Unibertsitatean hizkuntzen ezagutzaren eta ebaluazioaren inguruan egin diren ikerketak eta esperientziak balia litezke proba horiek prestatzeko, kudeatzeko eta emaitzen tratamendua eta ikerketa egiteko. Edonola ere, Fundazioaren ardura izango da probaren prestaketarako koordinazioa eta garapenean beharko dituzten bitartekoen eta kudeaketaren izendapena.

2.D.2.3. B1, B2 eta C1 probak Fundazio batek egitea eta kudeatzea. Fundazio hori, orekatua izan dadin, Administrazioak, Unibertsitateak, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak eta Hezkuntza eta Hizkuntza eragileek osatutako elkarteak izan daitezke. Bi aldeen arteko elkarlana — Administrazioarena eta herri eragileena — eta kontrol beharra ikusten da, baita borondate politikoarena ere batak bestearengan konfiantza izateko.

2.D.2.4. Ebaluazioa diseinatzeko kideen izendapena. Erakunde bakoitzak lan horretan aritua eta euskalgintzarekin konprometitua den jendea izendatzea. Jende hori, ebaluazioa aztertzen ari dena eta euskalduntze prozesuan konpromisoa duena izatea litzateke egokiena. Izendapen horiek guztiak, eta egin behar dituzten lanak Fundazioak koordinatuko ditu.

2.D.2.5. B1, B2 eta C1 proben emaitzen jendarteratzea. Fundazio horrek B1, B2, C1 eta burutu daitezkeen gainerako proben emaitzak publiko egitea. Jendarteari emaitzak orokortasunean aurkeztuko litzaizkioke, baina beste tresna bat artikulatzea komenigarria irizten da. Tresna hori interneten bidez balia liteke, eta bertan interesa duten eragileei eta pertsonen emaitzak sakontasun handiagoz aztertzeko eta erabiltzeko datuak eta aldagaiak eskaini beharko litzaizkioke. Bestalde, eskola bakoitzak bere emaitzak ezagutu behar ditu.

2.D.2.6. Hizkuntza-egiaztagirien egokitzapena. Egun dauden egiaztagirien mailak ikusi eta Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Markora egokitzea. B2 lan mundurako egiazta daiteke. EGA C1ekin baliokidetu daiteke.

2.D.2.7. Eskola bakoitzeko hizkuntza proiektua ebaluatzea. Proben emaitzen arabera, ez gainditzearen erantzukizuna zein motakoa den zehaztu behar dela aipatu dugu lehen. Erantzukizuna kolektiboa den kasuetan eskolako hizkuntza-proiektua ebaluatu beharko da, zerk huts egiten duen identifikatzeko.

Denboran emaitzak errepikatuko balira, bost urtetako aldia ipin liteke, Administrazioak neurri gogorrak hartu beharko lituzke eskola horrekiko.

Ziklikoki egiten den kanpo ebaluazioa izan daiteke: proiektuaren deskribapena, baliabideen azalpena, proiektuaren gauzatzea eta proiektua ebaluatzeko modua ebaluatu daitezke. Ebaluazio hori faktore zuzentzaile gisa erabil liteke. Ebaluazio honen helburua, batik bat, ikastetxearen jarduna ebaluatzea da, horrela ez litzateke ikaslea soilik ebaluatuko. Ebaluazio horrek, gutxienez, eskolako plangintzara iritsi beharko luke.

2.D.2.8. Eskolei hizkuntza egiaztapenerako eskumena ematea. Ikasleen hizkuntza egiaztapen soila oso isolaturik gera liteke. Unibertsitatean, lege berriaren arabera, espezializazioak egiaztatu behar diren eran, ikastetxeak ere hizkuntzen aldetik egiaztatu behar izatea.

2.D.2.9. Probak gainditzen ez dituztenen kasuak aztertzea. Lehen aipatu denaren haritik, erantzukizuna kolektiboa eta norbanakoa izan daiteke. Gainditzen ez dutenei begira azterketara aurkeztu ahal izateko beste aukera batzuk aztertzea.

2.D.2.10. probaren eskaintza. Nahi duten ikasleentzat C1 egin ahal izateko aukera zabalik uztea. Ikasleek 16 urterekin euskaraz B2 proba egin beharko dute derrigorrez. Aurreikusi beharko litzateke B2 mailak indarra hartzen badu beste mailekin zer gertatuko den. Arriskua izan liteke B2 beheko muga gisa ipintzen ez bada, hortik behera jotzeko joera agertzea. Hala ere, maila hori gutxienerako maila gisa hartu beharko litzateke.

Europako Hizkuntzen Erreferentzia Markoan jasotzen den **DIALANG** autoebaluazio tresna euskaraz eskaintzea internet bidez.

2.E. PROPOSAMENEAN ERABILITAKO ZENBAIT KONTZEPTURI EMAN ZAION ESANAHIA

2.E.1. Afektibitatea: Emoziozko prozesu osoa da. Ikasleek irakasleekin duten harreman afektiboen kalitatearen baitan eratuko dira hizkuntzekiko aldeko eta kontrako jarrerak eta hizkuntzekiko atxikimenduak. Afektibitateak zuzenean eragiten du ere motibazioan.

2.E.2. Eleaniztuna: bi hizkuntzatik gora erabiltzeko gaitasuna duen pertsona, ez derrigor funtzionaltasun bera lortuz hizkuntza bakoitzean. Hau da, aldiari aldiko komunikazio egintzak eskatzen duen helburua egoki lortzeko gai denari deitzen diogu.

2.E.3. Elebitasuna: oinarriko hizkuntza trebetasunak bi hizkuntzatan berdintsu maneiatzeko gaitasunari deitzen diogu elebitasuna. Bi hizkuntza horietan antzeko

trebetasuna izateaz gain, edozein egoera komunikatibotan parekotasunez komunikatzeko gaitasunari esaten diogu.

2.E.4. Euskalduna: bere lehen hizkuntza euskara duenari edo euskara berea egin duenari esaten diogu; bai alde linguistikoari dagokionez, eta baita alde kulturalari dagokionez ere.

2.E.5. Euskara ona: euskara eredugarria izatea esan nahi dugu, hizkuntza eraikuntza osatua duena, ikasleek ikasteko aproposa: jariokortasuna eta adierazkortasuna aldetik.

2.E.6. Euskara ongi irakastea: euskara funtzionala izan dadin erabiliko den metodologia komunikatiboari esaten diogu. Hizkuntza ongi irakasteko, irakasleak berriazko prestakuntza glotodidaktikoa behar du.

2.E.7. Euskaraduna: euskaraz komunikatzeko gai denari esaten diogu.

2.E.8. Hizkuntza-proiektua: Eskola bakoitzak bere Hezkuntza proiektuan biltzen dituen hizkuntzei dagozkien helburuak, edukiak eta metodologia biltzen dituen proiektuari esaten diogu. Horren arabera, hizkuntza desberdinetako irakasleak koordinatu ahal izango dute edukiak, metodologia edo hizkuntza jarduerak adosteko. Hizkuntza desberdinetako irakasleen arteko elkarlan horren ondorioz, hizkuntza bakoitzean ikasitakoa beste hizkuntzetara transferitzea ahalbideratuko da.

Proiektu horrek, gainera, bere baitan jasotzen dituen helburuak bete ahal izateko beharrezkoak diren bitartekoak esleituko ditu.

2.E.9. Hizkuntzaren irakaskuntza modu estentsiboan: hizkuntza bat ikasteko helburuaz aparte, beste ikasgaiak lantzerakoan erabiltzen den hizkuntzaren irakaskuntzari esaten diogu.

2.E.10. Hizkuntzaren irakaskuntza modu intentsiboan: hizkuntzaren eraikuntzaren osaketari zehazki bideratutako irakaskuntzari esaten diogu. Horretarako, irakasleak zehazki prestatu behar dira.

2.E.11. Interakzio aberatsa, kalitatezko interakzioa: komunikazio esanguratsua azpimarratzen duen pedagogia eredu eraginkorrari esaten diogu: hau da, komunikazio motibatua eta esanguratsua sustatzen duen interakziozko pedagogiari.

2.E.12. Metodologia aktiboa: ikasleen iniziatiba eta parte hartzea sustatzen duen metodologiari esan nahi diogu.

2.F. HIZKUNTZA IRAKATSI ETA IKASTEKO MARKOAREN GARAPENERAKO ARDATZ NAGUSIAK

Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoaren garapenerako hainbat proposamen aurkeztu dira txosten honetan. Aipatu proposamenak atalka zehaztuta multzokatu dira eta atal bakoitzean proposamen horien nondik-norakoak argudiatu dira.

Proposamen horien guztien artean hauek azpimarratu nahi ditugu, lortu nahi den helburua —hau da, ikasleek derrigorrezko eskolaldia amaitzen dutenean euskaldun eleaniztunak izatea—, erdiesteko erabakigarriak direlakoan:

1. Eleaniztasunaren izaera eta ezaugarriak jendarteratuko dituen diskurtsoa zabaltzea, hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntzaren planteamendu berri horretan euskarari lehentasuna ematearen abantailak eta alde onak azpimarratuz.
2. Ikastetxeko hizkuntza-proiektua antolatzea. Hizkuntza-proiektuaren barruan Hizkuntza Normalkuntza Plana zehaztea eta horiek kudeatuko dituen arduradunaren lanpostua sortzea dagozkion bitartekoekin. Hizkuntza Normalkuntza Plana preskriptiboa izatea.
3. Fundazioak izatea ebaluazioaren ardura. Fundazio horrek, B1, B2, C1 eta burutu daitezkeen gainerako proben prestakuntza eta kudeaketa egitea, proba horietako emaitzak publiko eginez.
4. Haur Hezkuntzaren amaieran ikasleen hizkuntzen aurrebaluazio glotodidaktikoa egitea.
5. Hizkuntza egiaztapenak eskaintzea, ikasleei eta ikastetxeei.
6. Eskolako langile guztiak euskaldunak izatea.
7. Irakasleen prestakuntza diseinatu eta antolatzea.
8. Haur Hezkuntzan, 0 urtetik 6 urtera, murgiltze eta mantentze ereduetan eskolatzea.
9. Irakasle eskolek irakaslegai euskaldunak soilik prestatzea.
10. Eusko Jaurlaritzak honen garapenerako proposamena abian jartzeko beharrezko bitartekoak aurreikusi eta onartzea.

3. HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO PROTOKOLOA

3.A. SORRERA

2016ko abenduaren 17an leporaino beteta zegoen Donostiako Kursaal jauregian Europako hogeita hamar hizkuntza-komunitate gutxiagotu baino gehiagoren normalizazioaren alde lan egiten duten ehundik gora gizarte eragilek urte eta erdiko prozesuaren ostean adostutako ituna aurkeztu zuten: Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa (HEBP).

Protokoloa Europako herritarren arteko berdintasuna bermatzeko lagungarria izango den tresna da. Europako hizkuntza gutxiagotuen alde lan egiten duten erakundeen beharretan oinarritutako dokumentua da, eta nola ez, gizarte eragileek botere publikoei egiten dieten ekarpena da. Alegia, hizkuntza gutxiagotuen berreskurapenaren alde lan egiten duten gizarte eragileak izan dira, beraz, Protokoloaren osatze-prozesuan motore, nahiz eta berme akademikoa ere baduen.

Izan ere, Protokoloaren osatze-prozesua bideratzeko Talde Antolatzailea eratu genuen, eta bertan nazioartean ospe eta eskarmentu handia duten sei erakunderi egin genion gonbita parte hartzeko: CIEMEN, LINGUAPAX, UNPO, ELEN, PEN INTERNATIONAL eta ECMI. Horretaz gain, Batzorde Zientifikoa eratu genuen. Batzorde hori hainbat eremutako adituek osatua egon zen, hain zuzen ere, Protokoloaren erredakzioan laguntzeko eta gizarte eragileen ekarpenei babes akademikoa emateko. Aipatu Batzordean, esan bezala, Europako adituek parte hartu dute, besteak beste, Elin Jones, Miquel Strubell, Ferran Suay, Jaime Vernet, Conchúr Ó Giollagáin, Ewa Chylinski, Iñigo Urrutia...

Hortaz, proiektuaren muina zera izan da, gizarte eragileen, erakundeen eta adituen arteko prozesu bat zabaltzea hizkuntzen arteko berdintasuna bermatzeari begirako protokolo bat prestatzeko. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren bidez hainbat lan-taldek ikuspegi zientifikoa, akademikoa eta soziala baliatuz, egoera gutxituan dauden hizkuntzen egoerari buelta emateko tresna eraiki nahi izan dugu, bai eta hizkuntza-komunitateen berdintasunean oinarritutako Europa berri bat eraikitzeko orubea sortu ere. Horrexegatik, hain zuzen ere, Protokoloa nazioarteko instituzio eta forotara helaraziko da hizkuntza-aniztasunarekiko konpromisoa neurtzeko tresna gisa erabil dezaten.

Protokoloa jorratzeko metodologia bera nahiko sinplea zen, nahiz eta prozesu osoa konplikatu izan den, ahalik eta hizkuntza-komunitate gehienen iritziak jaso nahi genituelako. Batzorde Zientifikoak Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak jasotzen dituen zazpi eremuetako (Printzipioak, Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Sozioekonomia, Onomastika, Hedabideak eta teknologia berriak eta Kultura) artikuluen azterketa egin zuen eta bertan aitortzen ziren eskubide guztiak identifikatu zituen. Ondoren, eremu horietako bakoitzak kontuan hartu beharko lituzkeen atal guztiak zehaztu zituen. Horrela, eremukako taulak prestatu zituen.

Lan horretan oinarrituta, hizkuntza gutxituen normalizazioaren alde lan egiten duten hamarnaka eragile sozialek ekarpenak egin zituzten, hain zuzen ere, eskubide horiek bermatzeko hartu beharko lirakekeen neurriak eta neurri horiek betetzen direla ebaluatzeko adierazleak proposatuz.

Horixe izan da prozesuaren alderik aberasgarriena. Hogeita hamar hizkuntza baino gehiagoko ehunetik gora eragilek ekarpen zehatzak, neurri zehatzak, proposatu zituzten hizkuntza-eskubideak bermatzeari begira. Zeinek bere egoeratik eta zeinek bere beharretatik, baina helburu bera: egoera gutxituan dauden hizkuntzetako hiztunen eskubideak bermatzeko bide-orria zehaztea.

Kontseiluak ehunka ekarpen jaso zituen eta lehenbiziko orrazketa egin behar izan zuen, hizkuntza-eskubideen eremutik at zeudenak alboratzeko. Izan ere, ekarpen oso interesgarriak jaso arren, horietako batzuk ez zitzaizkion zuzenean lotzen hizkuntza-eskubideen bermeari, eta beraz, alboan utzi behar ziren. Lehen orrazketa egindakoan, Batzorde Zientifikoaren esku utzi genituen ekarpen guztiak eta Batzorde horrek ekarpenen bigarren orrazketa egiteaz gain, ikuspegi akademikoa eman zion dokumentuari. Hori guztia amaitutakoan, 185 neurriko dokumentu bat aurkeztu zitzaigun.

Hartara, Protokoloaren neurriak adostuta, Talde Antolatzaileak dokumentuaren printzipio orokorrak zein ziren zehaztu zituen; alegia, Protokoloa ardazten duten printzipio nagusiak zein ziren definitu zituen. Hamaika dira Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa ardazten duten printzipio orokorrak: Hizkuntza-eskubideak; hizkuntzaren egatik bereizkeria; hizkuntzen estatusa: hizkuntzen ofizialtasuna; araubidea; neurri zuzentzaileak;

baliabideak; diskriminazio positiboa; unibertsaltasun printzipioa; arnasguneak eta memoria historikoa.

3.B. DERRIGORREZKO HEZKUNTZARI LOTUTAKO NEURRIAK

Esan bezala, Protokoloa zazpi eremutan ditu sailkatutako 185 neurriak. Hezkuntzari dagozkionak honela daude antolatuta:

HEZKUNTZA:

A. HEZKUNTZA FORMALA

1. HAUR-HEZKUNTZA
2. DERRIGORREZKO HEZKUNTZA
3. LANBIDE HEZIKETA ETA TREBAKUNTZA
4. UNIBERTSITATEA ETA GAINERAKO GOI-HEZKUNTZA
5. ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

B. HEZKUNTZA EZ-FORMALA

1. AISIALDI ZENTROAK, KIROL-TALDE ETA FEDERAZIOAK

C. IRAKASLEEN ETA HEZITZAILEEN TREBAKUNTZA

D. HELDUEK HIZKUNTZA GUTXITUA IKASTEA

E. CURRICULUMA ETA MATERIALAK

Jarraian, Eusko Jaurlaritzak abian jarritako Hezkuntzaren Aldeko Akordioaren prozesuan aurkeztutako *Akordioaren Oinarriak* dokumentuaren hizkuntzaren atalean koka litezkeen neurriak bildu ditugu:

A. HEZKUNTZA FORMALA

1. HAUR-HEZKUNTZA

1.1.	Zuzenean edo zeharka finantzazio publikoa jasotzen duten ikastetxe guztietan haurrei hizkuntza gubxituan irakasten zaie.	50
1.2.	Lehen urrats gisa, hizkuntza gubxituko hezkuntza eskuragarri dago eskatzen duten familia guztientzat.	51
1.3.	Eskolaz kanpoko jarduera guztiak eskuragarri daude hizkuntza gubxituan.	52
1.4.	Ikastetxeko langileek hizkuntza gubxituan aritzeko gaitasuna dute.	53
1.5.	Baliabide osagarriak eskaintzen zaizkie eskolak hizkuntza gubxituan jasotzen dituzten taldeei.	54
1.6.	Komunikazioari dagokionez, Administrazio Publikoaren ataleko B atala ikastetxe guztietan aplikatzen da.	55

2. DERRIGORREZKO HEZKUNTZA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

2.1.	Bada murgilze- eta mantentze-sistema orokor bat hizkuntza gubxituan.	56
2.2.	Lehen urrats gisa, hizkuntza gubxituko hezkuntza eskuragarri dago eskatzen duten familia guztientzat.	57
2.3.	Hizkuntza gubxituaren bidezko irakaskuntza, ahozko gaitasunak eta alfabetatzea barne, eskuragarri dago.	58
2.4.	Eskolarekin zerikusia duten jarduera guztiak -ikastetxe barruan nahiz kanpoan egiten direnak, eskolaz kanpoko jarduerak, etab.- eskuragarri daude hizkuntza gubxituan.	59
2.5.	Hizkuntza gubxituko gaitasunak eskuratzeko dakartzan onurei buruzko informazioa aktiboki zabaltzen da etorkinen artean.	60
2.6.	Baliabide osagarriak esleitzen dira.	61
2.7.	Ikastetxeek beren hizkuntza-proiektuak diseinatu dituzte eta aplikatzen ari dira, beren hasierako diagnosi, helburu eta xede-adinekin. Curriculumezko hizkuntza guztien ibilbidea zehazten da proiektu horietan, bai ikasgela barrurako bai ikasgelatik kanporako.	62

2.8.	Giza baliabideak eta baliabide materialak eskuragarri daude irakasgai guztiak hizkuntza gubxituan irakasteko, bigarren hezkuntzan.	63
2.9.	Langile guztiek gaitasuna dute hizkuntza gubxituan aritzeko.	64
2.10.	Komunikazioari dagokionez, Administrazio publikoaren eremuko B atala eskola-sistema osoan aplikatzen da.	65

C. IRAKASLEEN ETA HEZITZAILEEN TREBAKUNTZA

1. IRAKASLEAK	
1.1. Irakasle-eskolek hizkuntza gubxituaren ezagutza eta erabileran trebatzen dituzte irakasleak.	85
1.2. Hizkuntza gubxituaren egoerari erantzuteko trebakuntza berezia ematen da, ondoren zehazten den moduan:	
1.2.1. Irakasle-eskolek beren irakasgaiak hizkuntza gubxituan irakasteko trebatzen dituzte irakasleak, hizkuntza-maila altuarekin.	86
1.2.2. Egoera eleaniztun batean murgiltze-eredua gauzatzeko gai izateko beharrezko trebakuntza espezifikoak ematen zaie irakasleei.	87

E. CURRICULUMA ETA MATERIALAK

1. CURRICULUMA	
1.1. Ikasketak amaitzerako ikasleak gai dira hizkuntza gubxituan, hizkuntza nagusian eta atzerriko hizkuntza bat edo bitan aritzeko; hizkuntza gubxituko hiztun eleaniztunak dira, beraz.	96
1.2. Bertako kultura ardatz hartuta, Europako kultura eta kultura unibertsala lantzen dira curriculumean.	97
1.3. Curriculumean gai hauek jorratzen dira, bereziki: soziolinguistika, hizkuntza-aniztasuna eta ukipen-egoeran dauden hizkuntzei buruzko oinarriak.	98
1.4. Gurasoekin egiten diren bileretan hizkuntza gubxitua curriculumean egoteak dakartzan onurak azaltzen zaizkie aldiro-aldiro.	99
2. IRAKAS-MATERIALA	
2.1. Hizkuntza gubxituan irakasteko material egokia eskuragarri dago.	100
2.2. Testuliburuak hizkuntza gubxituan prestatzen dituzten argitalebeek diru-laguntzak jasotzen dituzte.	101

3.C. PROTOKOLOAREN EUSKAL HERRIRAKO GARAPENA

Horiek dira, beraz, Protokoloak derrigorrezko hezkuntzarekin lotzen dituen neurriak. Halere, Protokoloaren proiektua hizkuntza-komunitate gutxiagotuetao eragileekin partekatu izan denean, ikusi da oso beharrezkoa zela gizarte eragileok geure proposamen bateratua mahai gaineratzea, baina, aldi berean, oso argi ikusi da hizkuntza-komunitate bakoitzari dagokiola horren betetze-mailak nolakoa izan behar duen definitzea eta zehaztea.

Arras desberdinak dira egoera gutxiagotuan dauden hizkuntzen egoera, eta horrexegatik, hain zuzen ere, hizkuntza-komunitateek zeinek bere ibilbide-orria zehaztu behar du, Protokoloa erabilgarria izan dadin.

Zalantzarik ez dago hizkuntza baten berreskurapen-prozesua dinamikoa dela, baina arrazoi horrengatik ezinbestekoa da epeak zehaztea, prozesuak denboran amaiera izan behar duela irudikatzea ezinbestekoa da. Hartara, berreskurapen-prozesuari so gauden honetan, lehen urratsa hizkuntza-komunitateen eskubideak bermatzea da lehen geltokia.

Horrela, Protokoloaren Euskal Herriko garapena jorratu dute Kontseiluak eta Euskal Herriko hezkuntza sektoreko eragile nagusienek zein euskal sindikalgintzaren gehiengoak ere.

Honako ekarpen hau prestatzerako, Protokoloaren Euskal Herriko garapena itxi gabe dagoela esan behar dugu. Halere, konpromisoa hartu nahi dugu, Protokoloaren neurriak Euskal Herrira egokitzeko garapena osatutakoan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari igorriko diogula, kontuan har dezaten.

3.D. PROTOKOLOAREN EUSKAL HERRIRAKO GARAPENA

Arestian esan bezala, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa hizkuntza gutxiagotuen berreskurapenean lan egiten duten ehunetik gora gizarte eragileek adostutako dokumentua izan da, hogeita hamar hizkuntzatik gorako hizkuntzakoak, hain zuzen ere. Hona hemen Protokoloa jorratzen lagundu zuten gizarte eragileek ordezkatzan zituzten hizkuntzak:

Alsaziera	Frisiera	Katalana
Aragoiera	Friulera	Kornubiera
Aromaniera	Galesa	Korsikera
Asturiera	Galiziera	Ladiniera
Behe saxoiera	Galoa	Oil hizkuntzak
Bretoiara	Hungariera	Okzitaniera
Eskoziako gaelikoa	Irlandera	Sardiniera
Esloveniera	Kareliera	Tatarera
Euskara	Kashubiera	Voro

Euskarari lotutako eragileei dagokienez, hezkuntzaren eremuko honako eragile hauek lotu zitzaizkion proiektuari:

- EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK
- SORTZEN ELKARTEA
- EHIGE-EUSKAL HERRIKO IKASLEEN GURASO ELKARTEA
- EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAK SAREAN
- HIK HASI, EUSKAL HEZIKETAKO EGITASMOA
- KRISTAU ESKOLA
- UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Eragile horietaz gain, EAeko hezkuntza-eremuan gehiengoa duten ELA, LAB eta STEILAS sindikatuek ere bat egin zuten Protokoloarekin eta Euskal Herrirako Garapenerako ekarpenak egin dituzte.

4. ONDORIO NAGUSIAK ETA OINARRIEN AKORDIOAN BERARIAZ JASO BEHARREKOA

Akordioaren Oinarriak dokumentuak hizkuntzaren atalean honako helburu nagusi hau ezartzen zaio hezkuntza-sistemari:

Euskara eta euskal kultura ardatz hartuta, bi hizkuntza ofizialetan gaitasun aurreratua eta atzerriar hizkuntzan maila ertaina bermatzen duena, ikasle guztien, abiapuntua edozein dela ere, garapen pertsonal, sozial, akademiko eta profesionala lortzeko asmoz.

Esan behar dugu, helburu nagusi horrek bere egiten dituela etorkizuneko hezkuntza-sistemak hizkuntzari dagokionez kontuan hartu beharreko hainbat elementu.

Lehenik eta behin, euskara eta euskal kultura ardatza izan beharko du sistemak, eta ondorioz, hizkuntzen trataerari dagokionez, euskara oinarrizko hizkuntza izan beharko da.

Bigarrenik, ikasleek erdietsi beharreko hizkuntza-gaitasunak zehazten ditu. Horrela, euskararen eta gaztelanian gaitasun aurreratuak eta atzerriko hizkuntzan maila ertaina bermatu beharko ditu hezkuntza-sistemak, alegia, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Markoaren arabera, B2 maila eta B1 maila hurrenez hurren.

Azkenik, eta herritarren arteko berdintasun-printzipioari jarraiki, sistemak maila horiek bermatuko ditu ikasle guztien abiapuntua edozein dela ere. Hartara, Kontseiluak askotan adierazi izan duen bezala, afera ez da baldintza soziolinguistiko makurragoa duten eremuetan gaitasunak jaiste, inondik inora ez. Kontua da, berdintasun-printzipioa bermatzeko ikasleek maila eta gaitasun berdinak eskuratzeko bidean jartzea eta *gutxiago duenari gehiago ematea*.

Akordioaren Oinarrietan jasotzen da hizkuntza bakoitzaren funtzioa eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartu beharko direla, eta ulertu nahi dugu helburu nagusiak adierazitakoaren arabera egoera soziolinguistikoa kontuan hartzea lotzen zaiola egoera makurragoa duten eremuetan baliabide berezituak jartzeari, hain zuzen ere, ikasle guztien arteko berdintasuna bermatzeko. Hau da, erabat desegokia litzateke ikastetxea kokatuta dagoen eremuak edo ikastetxeak duen errealitate soziolinguistikoak ikasleen gaitasunak moldatzeko aukera zabalik uztea. Horrek, ikasleen arteko berdintasun-printzipioarekin talka egingo luke.

Perspektiba horretatik ulertzen dugu, beraz, *Akordioaren Oinarriak* dokumentuak jasotzen duena: Euskara ardatz duen sistema eleanitza proposatzen den neurrian, honako gaitasun-mailak ezarriko dira helmuga bezala: bi hizkuntza ofizialetan Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 LH amaitzerakoan eta B2 DBH amaitzerakoan, Europako herrialdeetan ohikoa denez; atzerriar hizkuntzan, A2 eta B1 maila hurrenez hurren.

Kontseiluak betidanik defendatu izan du ikasleek derrigorrezko hezkuntza bukatutakoan, gutxienez, B2 maila izan behar dutela hizkuntza ofizialetan, eta B1 maila atzerriko beste hizkuntzan. Hartara, egokitzen jo dugu *Akordioaren Oinarriak* delakoan ikasleek lortu beharreko gaitasunak zehaztea, hain zuzen ere, ikastetxeetako hizkuntza-proiektuak prestatzeko nora heldu beharra argiago uzten du eta erraztu egiten du beraren prestakuntza.

Elementu hori oso garrantzitsua da etorkizuneko hezkuntza-sistema definitzeko orduan, eta horrexegatik, interesgarria da *Akordioaren Oinarriek* eta Kontseiluak bat egitea ikasleek erdietsi beharreko gaitasunetan.

Adostasun horretan oinarrituta, Kontseiluak gaitasun horiek lortzeari begira proposamen integrala helarazi dio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari kontuan hartzeko.

Izan ere, ISEI-IVEI erakundeak 2005ean argitaratutako emaitzen arabera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitutakoan B ereduko ikasleen %32.6k egiazta zezakeen B2 maila eta B ereduko ikasleen %68k.

Datu horiek, beraz, bidea erakusten digute. Alegia, datu horien arabera, *Akordioaren Oinarriek* ezarri duten helburu nagusia betetzeko gehien lotzen zaion eredia D eredia da (murgiltze- edo mantentze-eredua), eta, noski, eredu horretan ere hobekuntzak egin beharko lirateke.

Hori guztia kontuan hartuta, **Kontseiluak argi du *Akordioaren Oinarriak* dokumentuak propio jaso beharko lukeela ikasle euskaldun eleaniztunak bermatuko dituen ikasteredu orokorra jarri behar dela abian (gaur egun indarrean dagoen murgiltze- edo mantentze-eredua oinarri), arestian aipatutako gaitasunak lortuko badira, eta ikasle guztiak derrigorrezko hezkuntzaren amaierara baldintza berdinetan heltzea nahi badugu.**

Horretarako, Kontseiluak hezkuntza sektoreko eragile nagusiekin eta hainbat aditurekin zehaztutako *Ikasle Euskaldun Eleaniztunak* proposamena erabil daiteke abiapuntu gisa. Izan ere, urteetan belaunaldi berri euskaldun eleaniztunak ekarri dituzten sistemetako eragileen eskarmentuan eta pedagogian, psikologian eta didaktikan aditu diren pertsonen ekarpenetan oinarritutako proposamena da. Halaber, gogorarazi nahi dugu Kontseiluaren ekarpenean jasotako bi dokumentuok, *Ikasle Euskaldun Eleaniztunak* eta *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa*, gaur egunera arte hizkuntzaren eremuan gizarte eragileen babes handiena jaso duten proposamenak direla.

Zalantzarik gabe, ikasteredu orokortuak bakarrik ez du lortuko belaunaldi berriek hizkuntza gaitasun egokia izatea, baina nahitaezkoa da derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan ikasle euskaldun eleaniztunak izateko.

Akordioaren Oinarriak dokumentuak dioten bezala irakasleriaren prestakuntzaz, ahozkotasanaz, gizartearen ardurez, eskolaz kanpoko jardueraz, aisialdiaz... hitz egin behar da, bai eta, gure ustez, hizkuntza-politika orokorrean egin beharreko jauziez ere. Hor ez dugu inolako zalantzarik, baina horrekin batera murgiltze-eredua oinarri duen ikasteredu orokortua ere abian jarri behar da ikasle guztiak hizkuntza-gaitasun horiek eskuratzeko.